

5. Kanala:

Erabakigarria da bezeroengana bezeroek eurek nahi duten moduan iristeko kanalen konbinazio zuzena aurkitzea merkatura balio-proposamen bat eraman eta arrakasta lortzeko. Masajista zentro bat daukagunez guregana etorri beharko dira baina, horrez gain telefono deiak hartuko ditugu eta gu joango gara gure bezeroen etxeetara kasu berezietan, gainera Web-gune bat egingo dugu gure bezeroek hitzarmenak eskatzeko eta bezeroekin harremanetan egoteko.

Web-gune horretan gure email-a, telefono zenbakia eta helbidea jarriko ditugu eta arazorenbat edo egonez gero bertara joan gabe abisatu ahal izango dute. Gainera iritzi eta iruzkinentzako atal bat jarriko dugu eta beraien iritzia emateko aukera izango dute eta guk bertatik gure alde txarrak eta onak ikusi ahal izango ditugu eta horren arabera hobetzen joan.

Interneta hainbeste erabiltzen ez duten pertsonentzako irratian, aldizkari eta egunkarietan ere jarriko ditugu gure kontakturako telefono, email eta helbidea.